


blauista ! (2)**Testamentu berria****Edorta
Jimenez**

Usoa agureari begira eta agurea usoari, elkarren gandik zerbait itxaroten modura, halaxe egon dira biak luzaroan. Azkenik, seinaleztat hartu du gizonak hegaztia. Eta zereginari ekin dio.

Horko armairuko tiradoreetan begiratzeko hasi da.

— Hementxe jagok —berekiko esan du Notaritzako paper multzoa aurkitu-takoan.

Jantzi eta jakapean gorde ditu paperak. Kalerako bidean Sor Teresa ikusi du.

— Teresa Kalkuluetako —pentsatu du gizonak.

— Joseba Mirena Tentelena —pentsatu du besteak.

— Egunon! —esan diote elkarri, giza-bidezko irribarre zuriz.

— Gosaldu gabe kalera? —galdetu dio Paskual lagunak.

— Egunero be ez dok komeni —erantzun dio—. Eskatuko deustak taxia?

— Gernikara! —agindu dio taxistari. Bidean, hasieran, nagusia eta morroia-
ren arteko hitzak, doi doi, eguraldiaren gorabeheraz.

Kilometro parearen faltan, proposa-
mena egin dio Jose Maria Jaunak.

— Beituk lagun, testamentua aldatu gura joat; testiguak behar joadaz horre-
tarako. Ondo pagatuta, jakina.

— Hori besterik ez bada eginda dago...
jauna.

— Hirezat, Jose Mari; ze jaun eta ze jaunondo, Jose Mari!

Notaritzako aurrera ailegatu, taxitik kanpora urten eta Jose Mari zuzen bar-
rurantz jo duen bitartean, lekuko gehia-
go bila joan da taxista.

— Joseba Mirena jauna, zer moduz dabil berori.

— Utzik berori hori eta ekiok lanari —erantzun dio Jose Mari enplegatua-
ri—. Notarioa, non dago notarioa?

Barrura pasarazi du enplegatua, fil-
metako morroiek baino makurtuago bu-
rua.

— Jose Maria! —konfidantza kutsuz notariak—. Zerk ekarri zaitu hona?

— Beituzu, hiltzekotan nago eta tes-
tamendu...

— Hiltzekotan zu? Zu oraindio...

— Zurikeriarik ez. Hogeitamar egun geratzen jataz. Eta testamentua aldatu egin gura dot. Ahamen dago. Eta hau ka-
pitulu hau laburtzearen, testamentu ba-
rria egin gura neuke, izenpetua baina zer



nori utziko deustadan jarri beharreko lekuak zuri utzita, hau da, oinordekoen izenen lekuak bete barik, bai? Hil baino lehen beteta ailega araziko deustut.

— Testiguak?

— Hortxe kanpoan.

— Barrura deitu dituzte lekukoak. Notari jaunaren aurpegian igartzen da nondik atera dituen taxistak; trabenatik. Nazka gaindutarik, zeozer esatearren ko-
mentatu die lau lekukoei.

— Hemen dagoz sartu-sartu enekoak

—zahatotik edaten duenaren keinuaz.

— Dagoenean bonbon, ez dagoenean egon —erantzun dio testigu tripontzie-
nak—. Beste batzuk beste leku baten sartzen dabe ta...

Hitzok esan eta paltrika erakutsi du, nabarmen, tripontziak. Jose Mariak ba-
kea eskatu du.

— Hainbat arinen mesedez.

Paper ofizialak sinatzean nagusitu iza-
ten den giroan burutu dituzte legezko betebeharrak, tartean eztulak eta zintz

egiteak ere izan direlarik.

— Batzuk ez dakie paperik sinatzen musikarik barik —pentsatu du Notario jaunak. Eta lekukoei jaurti dien begirada edonor harri bihurtarazteko modukoa izan da.

—Zeu zarelako egin deustut mesedea, ze ez dakit hau legezkoa ote dan be.

Nekez ahaztuko da mesedez Jose Maria. Gerratean biak Partidukoak izan zirelarik, bera atxilotu zuten. Gerra os-
tean, zer eskatuko eta hara zer eskatu zion

notariak Jose Maria Jaunari; bera ez zela sekula ere partidukoa izan zin egin zezan. Notaritzari eusteko ezinbesteko baldin-
tza zenari baiezkoa eman zion aspaldiko Joseba Mirena alderdikideak.

— Mesedea? —berekiko—. Tira mu-
tilok, zoazte zeozer hartzen neure kon-
tura. Eta zuk —taxistari—, taxia prest ordu erdi barru, Kutzaren aurrean.

Aurrezki Kutzakoen erreakzioa Jose Maria Jauna ikustean, notaritzakoek izan duten beretsua izan da; men eta amen,

Testamendu barria
egin gura neuke,
izenpetua baina zer
nori utziko deustadan
jarri beharreko le-
kuak zuri utzita.

amen eta hemen.

Hementxe dagoz, bada, Zuzendaria eta agurea aurrez aurre, lehenago notari-
tza bezalatsuko erroletan.

— Nire kontuetako diruak erabiltzeko zer horreetariko bat gura dot. Eta diru barik erosteko beste bat be.

— Bai, Kutxa Txartela eta Visa gura dauz berorrek. Baina kontuan izan zen-
bakiagaz gogoratu beharra dagoala bes-
tela...

— Hori errez konpontzen da. Nire lumeroa? Ipinizu hirukoa, behar diren hiruko guztiak...

— Lau denetara...

— Ez jat ahaztuko, «hiru, hiru, hiru... kolkoka bete diru, kolkoka bete diru...». Eta lau bider dela be, «lau lau lau sardina bakalau...»

Txartel biak poltsikoan, han joan da Jose Maria, zur eta lur utzita zuzendaria. Honi otu zaiona izan da buruko odol-
tapena ondo ez duela agureak. Hala ere, ez dio ezer esan Jose Maria honi, beronek eman bait zion zuzendari aulkian jezaz-
tze behar izan zuen azken sakatada-
txoa, ukalondoaz eman ere.

Hamabiak baino lehen, Asiloan izan da Jose Maria, Josetxu edo Joseba Mi-
rena, izenak hiru eta izana bat. Edo bi hemendik aurrera, ze eguerdion lehenen-
goz bete da Hiru Damek agindurikoa; gaztetu egin da bapatean. Alabaina, bi-
garren zatia ere bete egin da. Jagotik ez zaio oroitzen ametsa.

**txipiroi
esnea**

GAUZAK

Atsoak ez du amaitzen bere zorionaz mintza-
tzen.

— Neskato hau zerutik jatxi zen nere zahar-
tzaroaren alegantziarako. Gure Jainkoak bidali
zidan aingeru bat. Nere lurrezko gorputzean jaio
zen lore eder bat. Ai, zer ote nintzateke, bakarrik
munduan, inoren maitasunik gabe!

Atsoak laudorioekin jarraitzen du.

— Nere alaba hau santa bat da, zeren bere
esku mirakulutsuek minak uxatzen eta zauriak
sendatzen dakite. Nere gaua argiz bete zuen eta
nere zahartzaroa epeldu zuen. Zer ote nintza-
teke, guztiaren umezurtz, edozein bidetan hil-
tzera behartua!

Atsoak bere laudorioen letania jarraitzen du.

— Nere gorputzak bere arraunak galdu zi-
tuen, baina nere neskatoarenak gogorak eta

indartsuak dira. Izotzek nere leihoak lurrindu
dituztenean, oraindik ere bideak ikusten ditut
nere alabaren begi garbietan. Ai, zer ote nintza-
teke!

Atsoaren ezpain zimurretatik zorionez bete-
riko hitzak ateratzen dira.

— Nere alaba zen eta orain nere ama da. Zer
ote nintzateke zaintzen nauen amatxo hau gabe!
Ai, hiltzen naizenean edukiko dut zeruan niga-
tik erregutuko duenik!

Atsoak bere zoriona kontatzen jarraitzen du.
Behin atsoari galdetu nion:

— Zein zen zure alabaren aita?

Eta atsoak erantzun zidan:

— Ez dakit nola deitzen zen, baina... be-
katua izan dadila bere izena!

Egilea: Alfonso R. Castelao
Liburua: 'Gauzak'
Itzultzailea: Ramon Etxezarreta
Argitaratzailea: Susa, 1986
Orrialde kopurua: 110